



"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa
Haur eta Lehen Hezkuntza
Alzate, 8 - 31780 BERA
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxa
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C



KALITATEAREKIKO KONPROMISOA
COMPROMISO CON LA CALIDAD



Colegio Público "Ricardo Baroja"
Educación Infantil y Primaria
Alzate, 8 - 31780 BERA
Teléfono 948 625019 / Fax: 948 625082
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C

GURE ESKOLAKO GURASOEI:

Lehenik eta behin AGUR BERO BAT guztiei eta, berriak zaretenei bereziki, **ONGI ETORRIAK**.

Idazki honen bidez, 2019-2020 ikasturteko antolamenduaren xehetasun batzuk azaldu nahi dizkizuegu. Aurtan, 211 neska mutiko izango ditugu gure eskolan eta bertan lanean arituko garen irakasle taldea honako hau da:

H.H. 3 urteko gela: Idoia Iturbide

H.H. 4 urteko gela: Ainhoa Agesta

H.H. 5A urteko gela: Ana Hernandorena

H.H. 5B urteko gela: Ane Eraña (Idazkaria)

L.H. 1 maila: Itziar Arozena

L.H. 2.A maila: Dane Olasagasti

L.H. 2.B maila: Miren Irurzun

L.H. 3.A maila: Arantxa Mitxelena

L.H. 3.B maila: Gorka Rodriguez

L.H. 4. maila: Maite Altxu

L.H. 5. maila: Ixaka Cruz (Maite Blanco)

L.H. 6. maila: Joxerra Lopez

HH laguntza: Rosa Eugi (Zuzendaria)/Mikel Elizalde

LH laguntza, informatika: Eider Zapirain (Ikasketa Burua)

Ingelesa HH4 urte, HH5 urte A, LH2A eta LH 2B: Itxaso Villanueva

Ingelesa HH5 urte B, LH1 eta LH3B: Mikel Elizalde

Ingelesa LH4, LH5 eta LH6: Vanesa Garcia

Frantsesa: Fermin Santxex

Gorputz Heziketa: Jon Irazoki (Mireia Ostiz)

Musika: Axun Ezkurra

Erljioa: Iñigo Aguirre

Orientatzailea: Sara Largo

Pedagogia Terapeutikoa - Gela Alternatiboko tutorea: Inaxio Sansiñena

PT: Kattalin Fagoaga (Agustin Burlada)

Hizkuntza eta Entzumen irakaslea: Jaione Jimenez eta Gorka Garcia

Zaintzaileak: Anabel Sobrino, Belen Azpiroz eta Tere Aleman

Zuzendaritza orduak: Astearteetan 11:30etatik 13:00etara.

Idazkaritza orduak: Astearteetan, 12:10etatik 13:00ak arte.

Tutorearekin biltzeko ordua: Bakoitzak bere tutorearekin ordua zehaztuko du.

Jantoki zerbitzua: Guraso Elkarteak kudeatzen du zerbitzu hau. Dakizuenez, irailean eta ekainean ere zerbitzu hau eskaintzen da. Irailaren 6an hasi zen eta ekainaren 19 bitartean iraunen du. Era berean, asteazkenetan ere jangela eta haurtzaindegi zerbitzua arratsaldeko 16:00 arte izanen da.

Egunero gelditu behar dutenek hilabeteko kuota ordainduko dute. Egunero gelditzen den ikasleren batek, egunen batean ez badu gelditu behar, goizeko 10:00ak baino lehen abisatu behar du sukaldean, edo **640818992** washapp zenbakira mezua bidaliz.

Beti bezala, egun bakanetan geratzeko aukera ere badago, aski izanen da goizean (10:00 baino lehen) sukaldean abisatzearekin, asteazkenetan gelditu nahi izanez gero, **aurreko egunean** abisatu beharko da.

Errezibo guztiak (egun banakakoak ere) banketxetik pasatuko dira. Horretarako kontu zenbakia eskatuko zaizue.

Arduraduna: Marta Vivanco

Guraso Elkartea:

Guraso Elkarteko partaideak astero elkartzen dira. Bilera hauetan nahi duzuen guztiek parte har dezakezuela jakinarazi nahi dizuegu.

Lehendakaria: Miren Zudaire

Haurtzaindegi zerbitzua:

Aurreko ikasturteetan bezala, aurten ere haurtzaindegi zerbitzua (gosaria barne) egonen da, goizeko 8:00etatik 9:10etara.

Arduraduna: Leire Irurieta

Materialaren kuota:

Urtero, ikasleek erabiliko duten material suntsikorra eta fotokopiak ordaindu ahal izateko diru kopuru bat eskatzen zaizue.

Ordainketa **SEPA**n bidez eginen da****, SEPA baimena sinatua ez duten familiek honako kontuan egin beharko dute ordainketa:

La Caixa: 21003693212200031720. Sarrera egitean zuen seme alaben **izena eta abizena** agertzen direla egiaztatu eta egiaztatzea tutoreari eman.

Ordaindu beharreko kopurua honako hau da:

Eskolan seme-alaba bakarra dutenek: 40 euro

Eskolan bi seme-alaba dutenek: 60 euro

Eskolan hiru seme-alaba dutenek: 70 euro

Egutegia eta ordutegia:

Aurtengo egutegia ohar honekin batera igortzen dizuegu.

Ordutegiari dagokionez gogoratu:

Astelehen, astearte, ortzegun eta ostiraletan

Goizez: 9:10etan sartu eta 13:00etan irten.

Arratsaldez: 14:30etan sartu eta 16:10etan irten

Asteazkenetan, irailean eta ekainean

Goizez soilik: 9:00etan sartu eta 13:00etan irten

Gurasoekiko ikasturte hasierako bileren egutegia:

Haur hezkuntza 3 urte: Urriak 29

Haur hezkuntza 4 urte Urriak 17

Haur hezkuntza 5 urte A eta B: Urriak 15

1. maila: Urriak 3

2. maila A eta B: Urriak 10

3. maila A eta B: Urriak 8

4. maila: Urriak 7

5. maila eta 6. maila: Urriak 1

Bilera hauek guztiak **arratsaldeko 16:30etan** hasiko dira. Gogoratu zuen seme-alabentzat hagitz garrantzitsua dela zuen partaidetza. Guraso eta irakasleen arteko harreman zuzena eta estua hagitz onuragarria da.

Baimenak: Posta elektronikoz galdetegia bat iritsiko zaizue zenbait baimen eskatzen.

IKEE eta Zerbitzuen Gutuna: Edozein Iradokizun, Kexa, Erreklamazio edo Esker ona izanez gero eskolako web orrian inprimakia eskura izanen duzue. Bestaldetik, aipatu eskolako web orrian Zerbitzuen Gutunaren atalean eskolan egiten diren gogobetetze inkesten eta beste adierazle batzuen neurketak ikus ditzakezuela.

Irteerak:

Irteera bakoitzaren berri tutore edo zuzendaritzaren bidez izanen baduzue ere, jakin ezazue irailean bi irteera aurreikusi ditugula: eskola osoa Lizuniagara (data zehazteko dago) eta irailaren 20an, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloa Donostiako Zinemaldira.

AGUR BERO BAT.